

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

**KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA**

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Gobernua eta Baztango Udala lankidetzan arituko dira Iruritako Dorrearen etorkizuneko irekitze publikorako

*2016an hasi ziren dorrea zaharberritzen, eta 2019an amaituko dituzte lanak*

Asteazkena, 2018.eko urriak 17

Nafarroako Gobernua eta Baztango Udala lankidetzan arituko dira Iruritako Dorrearen etorkizuneko irekitze publikorako. 2016an hasi ziren dorrea zaharberritzen, eta 2019an amaituko dituzte lanak. Lankidetzarako terminoak foru-gobernuak gaurko bileran onartutako eta bi erakundeek datozen egunetan sinatuko duten hitzarmenean jasotzen dira.



Iruritako Dorrea.

Dorrea Erdi Arokoa da, Foru Erkidegoaren ondare arkitektonikoaren parte handi bat bezala, eta, ziurrenik, Baztango dorre-etxerik zaharrena da.

### Lankidetzak

Lankidetzarako hitzarmenean jasotakoaren arabera, Vianako Printzea *Erakundeak - Kultura Zuzendaritza Nagusiak* obraren ondoko faseen kostua bere gain hartzen du, eta baita dorrearen aldazio egonkortzailea ezartzeagatik gastuak ere. Bestalde, Baztango Udalak behar diren kudeaketak egingo ditu dorrerako bideak erabilera publikoko beharrak bete ditzan. Udaletxeak ordainduko ditu sarbide horien kostuak.

Zaharberritze-obrek iraun bitartean, Udalak eraikinerako erabileren programazio bat kudeatu eta proposatuko dio Gobernuari, eraikineren babes-erregimenarekin bateragarriak diren hiritarren irigarritasuna eta bisita bermatzeko. Programazio horrek irekierako ordutegiak eta sartzeko baldintzak zehaztuko ditu.

Gobernuak, hitzarmen hau onartzeagatik ez du aparteko gasturik ordaindu beharko, zaharberritze-obretarako eta aldazio egonkorgailua ezartzeko jada hitzemandakoez gain.

### Zaharberritze-prozesua

2001ean, Baztango Udalak 120.000 euro ingururen truke erosi zuen dorrea. Oso egoera ezegonkorrean zegoen, eta hura mantentzea eta

haren erabilera publikoa bermatzea zen helburua. Higiezina kultur intereseko ondare gisa babestuta dago 1949az geroztik, Nafarroako Gobernuak 2013tik babestutako eta mugatutako ingurunearekin.

Dorrea erortzeko zorian zegoen, eta 2014an premiazko hainbat ekintza abiarazi eta gero (egonkortzaile bat jartzea hego-ekialdeko eta ipar-ekialdeko fatxadetan, eta eskorak barne-egitura osoan, eraikinak hondoratzeko arriskua zuela egiaztatu eta gero), 2016an, Gobernuak dorrea zaharberritzeko lehen fasea burutu zuen. Lan hura dorrea egonkortzean oinarritu zen, eta 482.075 euroko kostua izan zuen. Egurrezko barne-egitura desmuntatu eta gero, inguruko hormak egonkortu ziren.

2017an, bigarren fasea egin zen. Egurrezko barne-egitura eta estalkiak berreraiki ziren, eta 618.248 euroko kostua izan zuen. 2018an, hirugarren faseko lanak esleitu dira. Obra horiek 2019an amaituko dira, eta 319.418 euroko aurrekontua dute.

### **Dorrearen historia**

Dorrearen historia baztandarren leinuari zuzenean lotuta dago. Baztango haranaren jauntasuna XI. mendean dokumentatuta dago. Hurrengo mendeetan, baztandarrak Nafarroako Erresumari oso lotuta egon ziren. Gerra zibiletan (XV. mendea), Jaureguizarreko jaunak agaramontarren alde jarri ziren, eta, adibidez, 1496az geroztik Martín de Jaureguizar, Albreteko Juan eta Catalina de Foix errege-erreginaren idazkari izateko deitua izan zen. Errege-erreginek "orubearen eta jauregiaren antzinatasuna eta haren jabeen eta oinordekoen noblezia egiaztatu zuten. Erresuma honetako hamabi etxe zaharretako bat da, eta ohorezko eta Armagintzako Kaboen Jauregia".

Nafarroako beste gotorleku batzuek bezala, eraikinak Gaztelako errepresalien ondorioak jasan zituen Nafarroako konkistan zehar. Iruritako jaunak eta haren semeek defendatutako Mayako Gaztelua 1522an errenditu zen, eta erregeordeak agindu zuen Albreten aldekoak ziren dorre baztandarrak botatzeko: Bertiz, Zozaya, Azpilcueta eta Iruritako Jauregizarrea. Dorrea parte handi batean bota, baina pixkanaka berreraiki zuten XVI. mendean zehar eta XVII. mendeko lehenengo hamarkadetan. Haren Erdi Aroko fisionomiatik gezileihoen hondarrak, inguruko defentsahorma eta eraikinaren lehenengo bi mailak mantentzen ditu, ate puntadun eta leiho-multzoarekin. Gainontzeko altxaerak XVI. mendean hasitako berreraikitze-lanen ondorio dira.